

I. ADITZ SINTETIKOAK IRAGANEAN (3)

I.1. NEKIEN

- **EDUKI, EKARRI** eta **ERAMAN** aditzek bezala, **JAKIN**ek ere baditu forma sintetikoak:

orain: Badakit hor zaudela
orduan: Banekien hor zeundela

- Forma:

(nik)	...	NEKIEN	-	NEKIZKIEN
(zuk)	...	ZENEKIEN	-	ZENEKIZKIEN
(hark)	...	ZEKIEN	-	ZEKIZKIEN
(guk)	...	GENEKIEN	-	GENEKIZKIEN
(zuek)	...	ZENEKITEN	-	ZENEKIZKITEN
(haiek)	...	ZEKITEN	-	ZEKIZKITEN

- Erabilera:

1. Askotan, presentean bezala, **BA-** jartzen da aditzaren aurrean, aditzaren **baietza** markatzeko:

Banekien berandu zela - **Ya** sabía que era tarde
Bazenekien Lurdes ezkondua zela? - ¿**Ya** sabías que Lurdes estaba casada?

- Nork, zer, nola...** zekien´ markatu nahi denean, ordea, markatu nahi den elementu hori jartzen da aditzaren aurre-aurrean:

Mikelek zekien haren helbidea - **Mikel** (era el que) sabía su dirección
Fisika nekien ondo - **Física** (era lo que) sabía bien
Buruz nekizkien haren abestiak - **De memoria** me sabía sus canciones

2. Singularra, honako objektu hauekin erabiltzen da:

BANEKIEN	{	ikaskaia	(izena singularrean)
		berandu zela/zenik	(konpletiboa)
EZ NEKIEN	{	non zegoen	(zehir galdera)
		makina idazten	(zertan)
		zer esan	(zer)

Pluralak, berriz, izena du beti objektu:

BANEKIZKIEN haien izenak
EZ NEKIZKIEN zuen helbideak

Adibidea:

Mikelek ez zekien ezer	☛	Mikel no sabía nada
Buruz nekien poesia hori	☛	Sabía de memoria esa poesía
Banekien ospitalean zegoela	☛	Ya sabía que estaba en el hospital
Ez nekien gaixo zegoenik	☛	No sabía que estuviera enfermo
Banekien zertan ari zineten	☛	Ya sabía qué estabais haciendo
Ba al zenekiten dantza egiten?	☛	¿Ya sabíais bailar?
Ez zekien nola atera handik	☛	No sabía cómo salir de allí
Ondo nekizkien galdera guztiak	☛	Sabía todas las preguntas

ARIKETAK

1. Aditz-formak ikasteko, pasa itzazu **iraganera** ondoko esaldiak:

1. Lagun guztiek dakite eskiatzen.
2. Amak badakizki zuen sekretu guztiak.
3. Ba al dakizu Pili Parisa joana dela?
4. Telebista piztu dugu, baina ez dakigu zer programa aukeratu.
5. Herriko kontu guztiak dakizkizu.
6. Zuek ondo dakizue nork egin zituen pintada horiek.
7. Ez dakizkit zuen izen guztiak.
8. Badakit esan behar ez diren gauzak esan nituela.
9. Gaixoa, ez daki non sartu den!
10. Dena dakiela uste du, baina beharrezkoena ez daki: lasai bizitzen.
11. Ondo dakit Fisika, baina Kimika ikasteko daukat.
12. Ba al dakizu zertaz ari diren?
13. Oso motelak gara, ez dakigu dantza egiten.
14. Zer dakizue egiten?
15. Ez dakite nora jo.

2. Bete itzazu hutsuneak **jakin** aditzaren iragana erabiliz (gogoan izan batzuek **-en**, **-ela**, **-enean**, **-elako** edo horrelako atzizkiren bat daramatela):

1. Orain ikasi du zerbait, baina hasieran ez ... ezta kontuak egiten ere.
2. Nahi duzuna esango duzu zuk, baina gure gurasoek guk baino gutxiago ...
3. Garai batean behar beharrezkoa zen daktilografia; hori ez ... ez zuen lanik aurkitzen.
4. Lehen ba ... zuen izenak, baina zahartu naiz eta ahaztu zaizkit denak.
5. Zergatik joan ziren horren goiz? Ez al ... bostetan zela partidua?

6. Guztiz galduta geunden, ez ... nola irten zulo hartatik.
7. Dena ... uste zenuten, baina inportanteena ikasteko zenuten artean; bar-
katzen ez
8. ... bezala prestatu nuen arraia, baina ez zuten gustora jan; lehorregia
omen zegoen.
9. Inozoak ginen gu gaztetan, orain dakigunaren erdia ez ... orduan.
10. Zergatik esan duzu ez ... ezer? Ondo egin duzu azterketa!
11. Ba... zerbait prestatzen ari zinetela, baina nola pentsatu behar nuen nik ho-
rrelako jaialdia egitekoak zinetela?
12. Han ere hizkuntzak ... joaten ziren aurrera.
13. Eskolatik irten nintzenean, oso gutxi ... ; eguneroko praktikak erakutsi dit.
14. Zergatik ez zenuen esan ... guztia?
15. Gizon zuhurra zen benetan; beretzat gordetzen zuen

3. Euskaratu

1. Les he dicho todo lo que sabía, pero quieren saber más.
2. Lo mandaron a casa, porque no sabía hacer nada.
3. Si sabías que se iban a enfadar, ¿por qué lo hiciste?
4. No sabíamos dónde vivías; tu hermano nos ha dado la dirección.
5. Cuando no tenían dinero, no sabían qué hacer.
6. Sabías muy bien que yo era el mejor.
7. De joven me sabía de memoria un montón de canciones.
8. Nadie sabía cómo iba a terminar aquel viaje.
9. Lo que sabía se lo guardaba para sí.
10. Se dió cuenta de que algo había pasado, pero no sabía qué.
11. Tú hablabas mejor que nosotros, pero no sabías más.
12. Como no sabíamos a dónde ir, nos quedamos en casa.
13. Contaron todos los chistes que sabían.
14. Lo que sabíais vosotros lo sabía todo el mundo.
15. ¿No sabíais que estaba prohibido entrar ahí?
16. No sabíamos si estaba prohibido entrar ahí.
17. De pequeño no sabía andar en bicicleta; ahora ya he aprendido.
18. Sabías mucho, pero no sabías lo más importante.
19. Sabían que iba a ser duro.
20. De joven no sabía todo lo que sé ahora.



Testuak lantzen

1 Bete itzazu hutsuneak behar den aditza ipiniz:

Mila ofizioko gizona zen Emilio. Lantegi askotan ibilia ... eta gauza asko egiten Batez ere makinak konpontzen zen trebe. Herriko tailer guztietako nagusiek ba... nori deitu makinaren bat hondatzen zenean. Itsasontzietako motorrak ere ondo ezagutzen zituen Emiliok. Makina bat aldiz jaitsia zen makinetara hau edo hura konpontzera.

Gau batean, lo ... , telefonoz deitu zioten.

—Adizu, Emilio, etorri lehenbailehen gure barkura, motorra konpontzera. Ez dakigu zer daukan, baina ez dabil.

—Gizona, ba al dakizu zer ordu ... ? Bihar goizean joango naiz.

—Ez, ez, orain behar zaitugu. Goizeko zazprietan irten behar du barkuak itsasora eta lehenbailehen konpondu behar dugu. Diru asko galduko dugu bestela.

Zer egin ez ... geratu zen Emilio. Ezetz esan behar bazen, ezetz esaten ere ba... . Baina, beste aldetik, aukera polita zen hura.

—Adizu —galdetu zion gizonari—, zer barku da hori?

—San Anton' arrantzontzia da; ezagutzen ... , noski. Orduan zer, etorriko al zara?

—Bueno —barrua pozik zuen Emiliok—, beharbada bai; zenbat pagatuko didazue?

—Ba... hori galdetuko zenuela. Zenbat ordainduko dizugun? Ez dakit, bada. Etorri lehenbailehen eta hitz egingo dugu.

—Ez, ez, zenbat irabaziko ... jakin gabe ez naiz inora joaten.

—Tira, hamar mila duro emango Nahikoa al da?

Orduantxe esnatu zen benetan Emilio. Hamar mila duro! Hogei minutu pasatu baino lehen hantxe zen, 'San Anton' ontzian, makinak ikusten. Ezer ukitu gabe, motorretako pieza guztiak miatzen hasi zen. "Motor ona da hau —pentsatu zuen bere artean—; lehengo jendeak ere ba... gauzak egiten".

—Destorniladorea, mesedez —eskatu zuen gero.

Destorniladorea hartu eta motorren azpian erdi ezkutuan zegoen tornilo bat estutu zuen. Ondoren, zutitu eta eskuak garbitzen hasi zen.

—Konpondua dago —esan zuen irribarrez.

Eta horrelaxe zen. Motorrak pla-pla-pla hasi ziren berriz ere. Barkuko mekani-koek arratsalde osoan konpondu ez zutena, Emiliok bost minututan konpondu

Armadorea, berriz, haserre Horren lan errazagatik hamar mila duro eman beharra ere!

—Bai —esan zion Emiliok—, lan erraza zen, baina ... jakin behar zen!

makina bat: muchas

→ a. Aurkitu testuan hitz edo esaldi hauen antzekoak:

lantoki	ugazaba	sarritan	azkar-azkar	ez du funtzionatzen	agian
aski	igaro	begiratzen	gordean	mintzatuko gara	berriro

→ b. Egin ezazu testu honen laburpena; edo, bestela, kontatu lagun bati.



I. 2. NIOEN

- Aurreko kurtsoetan ikasia duzu **diot** aditzaren orainaldia (= esaten dut). Iraganean ere baditu formak aditz horrek:

Nik egia **nioen**, baina ez zuten sinesten - Yo **decía** la verdad, pero no la creían
 Zer **zioen** horrek? - ¿Qué **decía** ese?

- Forma:

	orainaldia	iragana
(nik)	DIOT	NIOEN
(zuk)	DIOZU	ZENIOEN
(hark)	DIO	ZIOEN
(guk)	DIOGU	GENIOEN
(zuek)	DIOZUE	ZENIOTEN
(haiek)	DIOTE	ZIOTEN

Ikusten denez, presenteko formak **nor-nori-nork** laguntzailearen formekin bat datoz; berdinak dira, hirugarren pertsonaren subordinazioan izan ezik:

Dirua eman dio	eta	Egia dio
Dirua eman dioela uste dut	baina	Egia dioela uste dut

Iraganean, berriz, forma guztiek dute **-en** amaiera hori, **nor-nori-nork** laguntzailearen formek ez bezala:

Dirua eman nion	baina	Egia nioen
Zer eskatu zenion?	baina	Zer zenioen?

ARIKETAK

1. Eman iraganean ondoko esaldiak:

1. Horixe diot nik ere.
2. Zer diozue zuek?
3. Ezetz diote, ez direla etorriko.
4. Entzun al duzu zer dioen hark?
5. Guk dioguna jende guztiak daki.
6. Hori badiozu, ez zara ondo ari.

2. Bete itzazu hutsuneak **nioen** aditzaren iragana erabiliz.

1. Badakizu zer ... horiek?
2. Ezetz ... nik ere, ekonomia ez zela berehalakoan hobetuko.
3. Jende gutxi zebilela ... zuek, baina kaleak beteak zeuden.
4. Zuk ... ez zen sinestekoa.
5. Zergatik ez zenuten sinesten guk ... ?
6. Zer ... jendeak pelikula horretaz?



Testuak lantzen

1 Irakurgai .

EGIN KOPIAK BADA EZPADA ERE

Lantegi txiki batean egiten zuen lan Carlosek. Bulego estua zeukan, dena karpeta eta paperez bete. Apal guztiak gainezka zeuden. Armairu gainak eta azpiak ere berdin. Bazter guztiak aprobeztatuta zeuden han. Bisitarietzako siloia eta mahaitxoia ere paperez josita zeuden. Bulego hartan ez zen paper bat gehiago kabitzen.

—Horrela ezin da jarraitu —pentsatu zuen Carlosek—. Astero ehundaka gutun eta faktura berri artxibatu behar izaten dut eta hemen ez dago horretarako lekurik.

—Zerbait egin behar zela garbi zegoen. Ez zitzaion, ordea, ezer bururatzen. Azkenean zuzendariari notatxo bat idaztea erabaki zuen. Honela zioen notak:

Gutun eta faktura berriak artxibatzeke lekurik gabe nago. Beraz, ezertarako balio ez duten paper eta gutun zaharrak zaborretara botatzeko baimena eskatzen dizut. Carlos.

Hurrengo egunean jaso zuen zuzendariaren erantzuna:

Ondo da. Bota lasai zaborretara gutun eta paper zaharrak. Baina aurrera egin guztien fotokopia bana, bada ezpada ere. Zuzendaria.

gainezka: a rebosar

↪ a. Aurkitu testuan hitz edo esaldi hauen antzekoak:

argi	okurritu	zakarrak	lehenbizi
hartu	enpresa	eskutitz	biharamunean

↪ b. Erantzun:

1. Zer leku zegoen libre bulegoan artxibo berriak jartzeko?
2. Carlosek ez ditu bisitariak bere bulegoan hartzen. Zergatik?
3. Zein da Carlosi bururatu zaion konponbidea?
4. Paper zahar guztiak bota nahi al zituen Carlosek?
5. Besterik gabe hasi al zen Carlos paper zaharrak botatzen?
6. Egun asko pasatu al zituen zuzendariak erantzuna eman baino lehen?
7. Eman al zion zuzendariak paper zaharrak botatzeko baimena?
8. Zuzendariaren baimen hark balio al zuen problema konpontzeko?

↪ c. Bizpahiru aldiz irakurri eta gero, kontatu edo idatzi istorio hau .